

## NEVADAS Y TEMPERATURAS MÍNIMAS EXTREMAS. DEL 20 AL 23 DE FEBRERO

Desde el 20 hasta el 23 de febrero se producen precipitaciones débiles a moderadas en forma de nieve en cotas muy bajas, en torno a los 100-200 m, bajando ocasionalmente hasta el nivel del mar. Se acumulan espesores de nieve de 5-10 cm aproximadamente. Durante la tarde del 22 de febrero la situación atmosférica se estabiliza. Sobre la CAPV el gradiente de presión es prácticamente nulo y la nubosidad disminuye, finalizando el episodio de nevadas. La madrugada del 23 de febrero se abren grandes claros y se producen heladas generalizadas de intensidad débil a moderada en toda la CAPV. Al sur del territorio se producen, incluso, heladas fuertes. En zonas del interior y al sur de la CAPV se alcanzan temperaturas extremas: destacan los  $-17\text{ }^{\circ}\text{C}$  registrados en Navarrete, los  $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$  de Arkaute, los  $-9\text{ }^{\circ}\text{C}$  de Salvatierra, Otxandio y Berastegi, y los  $-8\text{ }^{\circ}\text{C}$  de Altube, Vitoria, Zambrana, Laguardia y Urkiola (ver tabla 3.1).

El 20 de febrero, la situación sinóptica está condicionada por la presencia de un anticiclón de 1036 mb centrado al oeste de las Islas Británicas, una depresión en el norte de Europa y otra depresión, algo más profunda, en el Mediterráneo (ver figura 3.1). Estas condiciones favorecen el flujo de vientos del norte que afectan a todo el territorio, aportando nubosidad y precipitaciones. Además, al mediodía, un frente frío hace incursión en la CAPV y durante la tarde atraviesa todo el territorio, provocando el descenso de las temperaturas, de manera que las precipitaciones en forma de lluvia pasan a ser de nieve en cotas muy bajas. La situación sinóptica se mantiene prácticamente invariable a lo largo del 21 de febrero. Durante la madrugada del día 22 se forma una baja al norte de Asturias. Un frente cálido y otro frío, asociados a esta baja, atraviesan la CAPV en la primera mitad del día, provocando nevadas muy copiosas, más cuantiosas y frecuentes al oeste del territorio. A lo largo del día la baja se desplaza desde la CAPV hasta el noreste de la Península Ibérica, finalizando el episodio de nevadas.

Durante estos tres días se produce una entrada de aire frío en las capas medias y altas de la atmósfera, que provoca el rápido enfriamiento de la atmósfera e inestabilidad. A 850 hPa los valores de temperaturas oscilan entre  $-5$  y  $-7\text{ }^{\circ}\text{C}$  (ver figura 3.2), mientras que a 500 hPa se sitúan entre  $-30$  y  $-35\text{ }^{\circ}\text{C}$  (ver figura 3.3).

## **ELURTEAK ETA MUTURREKO TENPERATURA MINIMOAK. OTSAILAREN 20TIK 23RA**

Otsailaren 20a eta 23a bitartean, prezipitazio ahul-ertainak jaso ziren elur moduan kota oso baxuetan, 100-200 m inguruan eta, noizean behin, itsas-mailan ere. Pilatutako elurtzaren lodiera 5-10 cm ingurura heldu zen. Egoera atmosferikoa egonkortu egin zen hilaren 22an arratsaldean. EAEaren gainean ia ez zegoen presio-gradienterik eta hodeitza urritzen joan zen elurteak amaitu arte. Hilaren 23ko goizaldean, ostarte handiak zabaldu eta izozte ahul-ertainak jaso ziren EAE osoan. Lurraldearen hegoaldean izozte gogorak ere izan ziren. Barnealdean eta EAEko hegoaldean muturreko tenperaturak neurtu ziren: nabarmentzekoak dira Navarreten neurtutako  $-17\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ak; Arkauteko  $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ak; Agurain, Otxandio eta Berastegiko  $-9\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ak; eta Altube, Gasteiz, Zanbrana, Biasteri eta Urkiolako  $-8\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ak (ikus 3.1 taula).

Otsailaren 20ko egoera sinoptikoaren arabera, 1036 mb-eko antizikloi bat Britainiar uharteen mendebaldean kokatuta zegoen, depresiogune bat Europa iparraldean eta beste depresiogune bat, zertxobait sakonagoa, Mediterraneoan (ikus 3.1 irudia). Baldintza hauetan, iparraldeko haizeak lurralde osoa astindu zuen, hodeitza handituz eta euria eraginez. Eguerdian, gainera, fronte hotz bat EAEn sartu eta arratsaldean zehar lurralde osoa zeharkatu zuen, tenperaturak behera eginez. Ondorioz, ordura arte egindako euria elur bilakatu zen kota baxuetan. Egoera sinoptikoa egonkor mantendu zen hilaren 21ean; 22ko goizaldean, ordea, Asturias iparraldean depresiogune bat garatu zen. Depresio horri lotutako fronte bero batek eta beste hotz batek, EAE osoa zeharkatu zuten egunaren lehen erdian, elurte oparoak sortuz, handiagoak eta ugariagoak izanik lurraldearen mendebaldean. Egunean zehar, depresioa EAetik Iberiar Penintsularen ipar-ekialdera mugitu zen, elurtea amaitu arte.

Hiru egun horietan zehar, atmosferako maila ertain eta altuetan sartutako aire hotzak, atmosfera azkar hoztea eta ezegonkor bihurtzea eragin zituen. 850 hPa-etan, tenperatura  $-5$  eta  $-7\text{ }^{\circ}\text{C}$  inguruan ibili zen (ikus 3.2 irudia), 500 hPa-etan, ordea,  $-30$  y  $-35\text{ }^{\circ}\text{C}$  inguruan (ikus 3.3 irudia).

Tabla 3.1. Temperaturas mínimas en °C registradas en algunas estaciones representativas.  
3.1 taula. Hainbat estazio adierazgarritan neurtutako temperatura minimoak °C-tan.

Estación/Estazioa	Día 21/hilak 21	Día 22/hilak 22	Día 23/hilak 23
Lasarte	-0,5	0,9	0,7
Deusto	1	1,7	0,9
Abetxuko	-6,7	-6	-8,1
Navarrete	-7,6	-9,2	-17,1
Salvatierra	-8,8	-6,5	-9,1
Berastegi	-12,3	-3,7	-9,5
Otxandio	-8,3	-8	-8,7




Figura 3.1. Presión al nivel del mar y frentes. 20 al 23/02/2005 a las 12 UTC.  
3.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak, 2005/02/20tik 23ra, 12etan UTC.




Figura 3.2. Geopotencial e isotermak a 850 hPa. 20 al 23/02/2005 a las 12 UTC.  
3.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara, 2005/02/20tik 23ra, 12etan UTC.




Figura 3.3. Geopotencial e isotermak a 500 hPa. 20 al 23/02/2005 a las 12 UTC.  
3.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-etara, 2005/02/20tik 23ra, 12etan UTC.